

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuan edukiko ditugun kostuak hauek izango dira:

Alde batetik kostu finkoak izango ditugu. Hasteko, makinak erosi eta ordainduko ditugu, 1200 eurotan. Hauek guk alokatutako fabrikari izango ditugu. Fabrika alokatua denez, bere kostu guztiak hilabeteko 1000 euro ingurukoak izango dira; zuzena, zuzenean ordainduko dugulako eta esan bezala finkoa da, beti berdina ordaindu behar dugulako. Bertan 20 ordenagailu eta 4 telefono izango ditugu, beraz, hauek ere kostu bat izango dute. Telefonoaren tarifa hilabeteko 15 euroko kostua izango du (zuzena eta finkoa), eta ordenagailu bakoitzarengatik 200 euro ordainduko ditugu.

Kostu aldagarrietan, berriz, arroparen materiala, ura, elektrizitatea eta gasa (berogailuentzako) izango ditugu. Baita ere, azken honetan ofizian erabiliko ditugun materialak, plastikoa arropa biltzeko, kartoizko kutxak... nabarmenak izango dira. Hauek kostu aldagarriak direnez, ekoiztutako kopuruaren eta beharren arabera prezio ezberdinak izango ditugu, kostuak alda daitezke.

Beste kostu bat banaketa enpresa izango da. Gure fabrikatik irtengo da urruneko bezeroen etxeetara. Kostu hau zuzena eta aldakorra izango da, eta ibilbidearen distantziaren arabera neurtuko da.

Hau guztiaz gain, gure enpresako langileen soldata ere ordaindu beharko dugu, hilabeteko batz bestea 400 eurokoa, baina beti ere egiten duen lanaren arabera. Kostu hau zuzena eta finkoa izango da. Esan beharra dago gure talde ez dugula soldata finkorik izango nahiko irabaziak izan arte.

ORDENAGAILUA	50 EURO/HILERO	X20	100 EURO
TELEFONOA	5 EURO	X4	20 EURO
FABRIKA	1000 EURO/HILERO		1000 EURO
SOLDATAK	400 EURO/PERTSONAKO	X100	40000 EURO
MAKINAK	50 EURO	X40	200
-	-	GUZTIRA	41320 EURO/HILERO

*Makina bakoitzaren kostua 1200 eurokoa da. Hau da, hilero 50 euro ordainduko ditugu 24 hilabetetan.

*Telefono bakoitzaren kostua 15 eurokoa da. Hau da, hilero 5 euro ordainduko ditugu 3 hilabetetan.

*Ordenagailu bakoitzaren kostua 200 eurokoa da. Hau da, hilero 50 euro ordainduko ditugu.

* Fabrikaren kostua hilabeteko 1000 eurokoa izango da alokatuta daukagulako. Ez dakigu zenbat hilabete egongo garen, beraz, hilabeteak pasa ahala ordainduko dugu.